



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Artearen Oinarriak

USE 2024

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

Proba idatzi honek 3 galdera ditu eta 90 minutuan, gehienez, gauzatu behar da.

Lehenengo bi galderetan, proposatzen diren bi aukeren artean bat bakarrik aukeratu behar duzu garatzeko. Azkenekoan, testu bakarra proposatzen da iruzkintzeko.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

1. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): bi irudi proposatzen dira. Aukeratu ezazu bat, eta egin irudiaren iruzkina. Analisisirako proposatzen den gidoia eredu bezala erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisisa: aztertu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (pinturaren kasuan, marrazkia, kolorea, argia, konposizioa, etab.; eraikuntzaren kasuan, elementu sostengatzaileak, elementu sostengatuak, oinplanoa, sortutako bolumena, dekorazio-elementuak...).
2. Interpretatu nola erabili dituen egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean.
3. Saiatu artelanaren gaia edo eraikuntzaren tipologia identifikatzen haren esanahian edo erabileretan sakontzen.
4. Aipatu zein diren obraren funtzioak, eta arrazoitu itzazu.
5. Erlazionatu irudia dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, argudiatu zer estilotako ezaugarriak ikusten diren bertan adieraziak eta saia zaitez zehazten zure ustez noiz egina den.



IKTINOS eta KALLIKRATES: Partenoia, K.a. V. mendea (ezk.)



PICASSO: *Avignon-eko andereñoak*, 1907 (esk.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

2. GALDERA (Proba idatziaren % 40 balio du): bi obra konparatzea proposatzen da. Proposatutako bi irudi pare hauetako bat hautatu, erreparatu irudiei eta konpara itzazu bururatzen zaizun edozein ikuspuntutatik (aztertu antzekotasunak eta ezberdintasunak): gaia/generoa/sinbolismoa, konposizioa, funtzioak, testuingurua, sorkuntza-ikuspegiak, espresio moduak...

A aukera



WARHOL: *Marilyn*, 1967, serigrafia



TOULOUSE-LAUTREC: *Divan Japonais*
lokalerako kartela, 1892-1893



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

B aukera



KaraKala-ren erretratua, K.a. III. mendea



BERNINI: Luis XIV.aren erretratua, 1665



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2024ko OHIKOA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A
LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2024

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

3. GALDERA (Proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Irakurri, laburbildu haren ideiarik inportanteenak eta erlazionatu arte-estilo edo arte-mugimenduren batekin zergatia argudiatuta. Elementu gehigarri gisa baloratuko da artistak proposatzen dituen ideiei buruz zure iritzi pertsonala.

Bizitza modernoaren miseriaren ondorioz, aurkitzen dugu artea bizitza baino interesgarriagoa dela.

Robert MOTHERWELL. *Adierazpena*, 1944



ARTEAREN OINARRIAK - FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

Zenbait gogoeta

- *Artearen Oinarriak* Artearen Teoria eta Historiako irakasgai bat da, baina sortzaileei zuzendua. Nahiz eta Humanitateen eta Gizarte Zientzien Batxilergoko *Artearen Historia* irakasgaiarekin edo Batxilergo Orokorreko *Kultura eta Arte Mugimenduak* irakasgaiarekin zenbait eduki partekatu, *Artearen Oinarriak* ikasten duten ikasleen profila ezberdina da, eta baita ere irakasleek eta ikasleek bere irakasgaiari ematen dioten ikuspegia.
- Artelanen iruzkinean, hemendik aurrera, irudiak identifikatuak agertuko dira (autorea, izenburua, data). Hortaz, ikasleei eskatzen zaie formaren analisi sakona egitea, obraren gaiaren inguruan gogoetak egitea, artelanaren funtzioak aztertzea eta arrazoitzea eta mugimendu edo arte-estilo bati esleitzea zergatia argudiatuz. Hortaz, artelanen iruzkin sakon eta argudiatu bat bilatzen da, bere testuinguru historiko-artistikoa aintzat hartzen duena.
- Gai teorikoan, proposatutako artelanen artean ahalik eta konexio eta ezberdintasun gehienak aipatzea eskatzen da. Irudien mugimendua edo estiloa identifikatzea inportantea da, baina baita ere artelanen atzean egon daitezkeen sorkuntza-ikuspegiak erlazioan jartzea. Kontzeptu bat esplikatzea eskatzen bada, kontzeptuak erlazioan jartzea edo haien bilakaera azaltzea, edukien adierazpen zorrotza eta gogoetaren heldutasuna baloratuko dira.
- Testuaren ariketak duen helburua da ikasleek sortzaile baten idazki bat ulertu eta bere testuinguruan kokatzeko gai izatea. Hemendik aurrera, aurkeztutako ideiekiko daukaten iritzia koherenteki argudiatzea ere baloratuko da elementu gehigarri bezala.



Ebaluazio-irizpide orokorrak

1. Eskatzen zaionari egokitzen da, eta gaien zentratzen da.
2. Zuzen eta argi adierazten ditu bere ideiak, eta gai da testu koherente eta egituratu bat egiteko.
3. Bere baieztapenak argudiatu egiten ditu.
4. Gaiaren hiztegi espezifikoak erabiltzen du.

Ebaluazio-irizpide espezifikoak

Artelan baten iruzkina: 4 puntu

- Komentatu beharreko artelanean erabiltzen diren forma-baliabideak identifikatu eta aztertzen ditu, eta artistak nola erabiltzen dituen azaltzen du.
- Artelanaren gaia aipatu eta azaltzen du. Artelanaren forma-errekurtsuak eta beraren esanahiaren arteko erlazioak agerian jartzen ditu.
- Gai da artelanaren funtzioak identifikatzeko eta justifikatzeko.
- Artelanaren eta bera historiografikoki sailkatzen den mugimendu edo estiloaren arteko loturak azaltzen ditu: obran ikusgai dauden mugimenduaren ezaugarriak aipatzen ditu, obra bere sorkuntza-garai eta espazioan kokatzen du...

Gai-proposamen baten garapena: 4 puntu

- Irudiak sakonki konparatzen ditu hainbat ikuspuntutatik: gaia/generoa/sinbolismoa, konposizioa, funtzioak, testuingurua, sorkuntza-ikuspegiak, espresio moduak...
- Proposatzen zaizkion irudien mugimendu edo estiloak identifikatzen ditu, eta haien ezaugarri garrantzitsuenak aipatzen ditu.



- Kontzeptu bat edo bi proposatu bazaizkio, definitu egiten ditu, haien bilakaera aztertzen du eta adibideak aipatzen ditu. Era berean, erlazio justifikatuak ezartzen ditu haien artean elkarrekin lotzeko edo ez lotzeko.

Testu-iruzkina: 2 puntu

- Testuaren gaia eta ideia nagusiak identifikatzen ditu.
- Gai da testuko informazio garrantzitsuena laburbiltzeko.
- Harremanak ezartzen ditu testuan agertzen diren ideien eta aipatzen duen estilo edo mugimenduaren artean.
- Testuak aipatzen dituen ideiekiko iritzi propio bat koherenteki azaltzen du. Argudio nahikoak erabiltzen ditu bere usteak berresteko.